



Merkataritza berrabiarazteko ahalegina

Prebentzio neurri zorrotzak jarraituta, merkataritza normaltasun berrira egokitzen ari da. Ostalaritza mantso doa, normaltasun berrian. / 4-5

AIURRIKO HARPIDETZA KANPAINA BEREZIA

Urte osoan zure pantailan agertzen gara

Bide beretik jarraitzeko harpidedun gehiagoren beharra dugu

Izan zaitez harpidedun, eta pantailan ikusten dituzun albiste,
bideo eta argazkiez gain, Aiurri aldizkaria eta astekaria etxeraino eramango dizkizugu

Maiatza-abendua bitarteko eskaintza honen kostua 25 eurokoa baino ez da

BAT EGIN GUREKIN, BAT EGIN TOKIKO PRENTSAREKIN

AIURRI, ESKUALDEKO NORTASUN HITZAK



25 €

Harpidetza egiteko sar zaitez
Aiurri.eus webgunean:
aiurri.eus/bazkidetu/



***OHARRA: Dagoeneko harpideduna bazara ez duzu ezer egin behar. Kanpaina hau HARPIDEDUN EZ DIRENEI zuzenduta dago**



IRITZIA

*Aiurri astekarian eta hamaboskarian argitaratu da, harpidetza sustatzeko ahaleginean

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

Aiurrikide berriak batzeko deialdia

Osasun Alarma Egoera piztu zenetik komunikabideon jardura esentzialtzat hartu zen. Lantaldean oso serio hartu genuen funtsezko ginen aitortza hori, eta kolaboratzaileen ekarpenarekin, aktualitatea eta konfinamendu egoera arintzeko eduki osagarria argitaratzeari ekin genion. Umorezko esketxak, BertsoVID19 ekimena, argazkigintza, literatura, komikiak... Albisteen jarioa biderkatu egin zen, martxoaren 13tik aurrera. TOKIKO-Metik iritsi zitzaigun landutako informazio jario horren guztia fruitua. Bilbotik sinatutako oharrrak zera zioen: "Toki komunikabideak ahalegin ikaragarria egiten ari dira egunotan, tokiko informazioa inoiz baino beharrezkoagoa den egoera berezi honetan lana txukun eta puntual egin, eta gertuko informazioa kalitatez eta euskaraz jasotzeko eskubidea bermatzeko. Hala, Arabako Aleak aise hirukoiztu egin du bisita kopurua, eta Beterri-Aiztondo-Buruntzako Aiurri.eus ere hortxe-hortxe ibili da, egunotan egiten ari den lan-keta bereziari esker".

Internet sareak emandako datu on horiez gain, hamaboskariari eta astekariari eutsi diogu. Ez dugu harpidedunekin dugun konpromisoan hutsik egin, eta paperaren ekoizpenari ere eutsi diogu.

Honek guztiak, ordea, badauka bere B aldea. Koronabirusaren krisiak sektore guztiak kolpatu ditu, eta tokiko hedabideena ez da salbuespena izan. Herritarrak geroz eta informazio gehiago kontsumitzen ari diren sasoi honetan, diru-iturri propioak inoiz baino gehiago murriztu zaizkigu. Bistakoa da publizitate aldetik tokiko hedabideok tokiko merkataritzarekin dugun lotura estua. Publizitate eta zerbitzu salmentak minimoetara jaitsi dira, egun batetik bestera. TOKIKOMeko bazkideok aurreikuspen bateratua egin dugu. Ikerketa horren arabera, tokiko komunikabideon fakturazioa %72 murriztu da. Aiurriren ka-



Aiurri.eus webgunea. AIURRI

suan, uztailaren 31 bitarte 25.000 euroko galera aurreikusten da. Kolpe handia da, guretzat.

Instituzio batzuek dagoeneko adierazi digute laguntzei eusteko borondatea. Ez dugu murrizketarik espero, nahiz eta badakigun instituzioentzat ere sasoi zaila dela.

Panorama ilun honetan ez dugu geldirik egon nahi eta gure baliabide propioak handitzeko ahaleginean murgildu gara. Maiatza-abendua bitarteko harpidetza kanpaina bereziari ekin diogu, Santa Krutz jaietan hasita. Eta kanpaina hori eskualde osora zabalduko dugu.

Aiurriko irakurlea harpideduna da, hein handi batean. Gure produktuen eta gure ibilbidearen berri badu, beraz. Ekintza txikia egitea eskatu nahi diogu gure harpidedun fidelari: Zabal ezazu ahoz ahokoan Aiurriren lana eta balioa. Harpidedun ez diren eta izan daitezkeen bizilagun, ezagun, senide eta gertukoak izango dituzu inguruan. Gonbida itzazu harpidedun egitera. Gauza txikia izan daitekeena, erabakiorra da Aiurrirentzat.

**MAIATZA-ABENDUA
BITARTEKO
HARPIDETZA
KANPAINA BEREZIARI
EKIN DIOGU**

Aiurri, hilabeteotako informazio kanala

Koronabirusaren krisia piztu zenetik, informazio jario gehigarriaz baliatu direnak ez dira soilik Aiurriko harpidedunak izan. Hilabeteotan milaka herrikideren arreta bereganatu du Aiurrik, aktualitateari eta aisialdiari lotutako edukiak uztartuz

Erredakzioa AIURRI

Aiurriko harpidedunak paperezko edizioa jasotzen ditu etxean, eta baita beste zenbait ekoizpen gehigarri ere: Urteko egutegia, kantu liburuxka, Ikusbera haur aldizkaria... Era berean, Aiurri.eus gunetik zabaltzen den jario informatibo etengabearen sustengatzaile bilakatzen da. Sarean zabaldutako informazioari begira milaka herrikide izan ditugu aste hauetan. Informazioa biderkatu eta publizitatea ia zerora jaitsi den garai hauetan, Aiurrik pantailaren bestaldeko irakurleak bereganatzeko harpidetza-kanpainari ekin dio. Beharrezkoa da hedabidearen iraupenerako.



Aiurri.eus gunean atal berezi ugari sortu da, hilabeteotan. AIURRI

Konfinamendua arintzeko edukiak

Aiurri.eus gunetik konfinamendua arintzeko eduki ugari zabandu da, hilabeteotan. Aktualitateari lotutako albisteekin batera, etxealdia ondoen eramateko helburuarekin eduki osagarriak jarri ziren abian. Hori guztia kolaboratzaile sareari esker izan da. Eta haiei guztiei eskertza adierazi beharrean gaude, Aiurriko lantaldearen izenean.

- **COVID19 DATUAK:** Tokikomek garatutako datu bidezko albistegia, zeinean kutsatuen eta sendatutakoen datuak egunero berritzen diren.
- **OSASUN ARLOKO LANGILEEN ALDE TXALOKA:** Azken 60 egunetan, iluntzeko 20:00ak iristean, jendea txaloka atera da leiho eta balkoitara. Egunean bideo bat igo da webgunera.
- **#BERTSOVID19:** 1.400 lagunetik gora, bertso-katean. Twitter bidez abiatu zen eta webgunearen bidez gizarte osoari helarazi zitzaizkion bideoak. Eskualdetik nazioartera zabandu da (Euskal Herria, Kolonia, Zelanda

Berria, Ingalterra...). Mailu Arruti, Jon Unanue eta Urtzi Ugalde aktoreek amaiera eman zioten ekimenari, bertso banarekin.

- **ILUSTRAZIOA:** Egunerokoa irudiz, Garbiñe Ubedaren eskutik.
- **TELEIRUDIMENA ETXETIK ETXERA:** Garazi Kamio & Ane Jalon: Umorea konfinamendu garaian. Argazkigintza, idatzia eta bideo landuak.
- **EGUNERO HASTEN DELAKO:** Diego Barrasa (Argazkia): Argazkia, goizero.
- **BELABITIK:** Maddi Trutxueloren eskutik, irudia eta hitza. Argazki horietako batek saria jaso zuen Kutxak deituriko lehiaketa batean.
- **AZTARRIKA:** Xabier Lasa prentsa kontsumitzaile amorratua da. Hainbat hedabideetatik harrapatutako mezuak eta loturak txertatutako zituen, atal horretan.
- **IPUINAK:** Marta Trutxuelok idatzitako ipuin sorta.

- **ANDOINGO DOINUAK:** Olagin Txistulari Elkartearen bidez, egoera berrira egokitu.
- **IZKIRIOTA ARDOAK:** Aide Jauregi adituaren aholkuak.
- **YOGA ETXEAN:** Eider Hidalgo Kulunka Yogakoaren eskutik.
- **ERRONKA:** Abregotarrek eta familia ezberdinek helarazitako bideoak.
- **ARGAZKIA ETXETIK:** Argazkiak partekatzeo ekimena.
- **ESKUALDEKO MUSIKA TALDEAK:** Koldo Otamendiren eskutik.
- **IRAGANAREN ETA ORAINAREN LEIHOA:** Argazki zaharra eta berria, kokapen berdinetik aterata, aplikazio informatiko ikusgarria baliatuz.
- **ETXEALDITIK EUSKARALDIRA:** Apirileko azken asteko ekimena.
- **#STKtXean:** Santa Krutz "jaian" jarraipen zabala, aurreko urteetako edizioekin lotura zuten datuak eta eferemideak uztartuz. Auzuneko merkatariei publizitate tarte dohainik eskaini zitzaizen, bizi duten egoera zaila dela eta.

Hedabideen egoera paradoxikoa

Informazio zerbitzua biderkatu duen proportzio berean murriztu zaizkio diru-sarrerak, tokiko prentsari. Merkataritzaren etenaldiak publizitatearen beherakada nabarmena eragin du. Jaietako gehigarri berezietan, nagusiki, nabarituko da galera handi hori

Erredakzioa AIURRI

Ekonomia osoari gelditzeko edo gutxienez mantsotzeko eskatu zaion honetan, Aiurrik eta gainerako toki komunikabideek ekoizpenari eutsi eta sarean handitu ere egin dute. Bi arrazoi nagusi egon dira horretarako:

- **Konbentzimendua:** Toki komunikabideen helburu nagusia erabiltzaileei gertuko informazioa ematea da, eta alarma egoeraren kontestuan, komunikabide guztiek baloratu dute euren funtzio hori inoiz baino beharrezkoagoa zela. Alde batetik erabiltzaileen informazio egarria asetzeko, eta beste alde batetik, tokiko erakunde eta eragileei informazioa zabaltzen laguntzeko.
- **Legea (2020/10 Erret-Dekretua):** Alarma egoera ezarri zen lehen momentutik, komunikabideen ekoizpena eta banaketa zerbitzu esentzialen barruan sartu ziren, legez ere jardunari eusteko agindua jaso. Dekretua-



Azken asteetako astekariak. AIURRI

ren 11. puntuak zehazten du: *“Las que prestan servicios de punto de venta de prensa y en medios de comunicación o agencias de noticias de titularidad pública y privada, así como en su impresión o distribución”*.

- **Zerbitzu bokazioa:** Aiurrik hasiera-hasieratik aktualitateari eutsi zion. Eta, bestalde, kon-

finamendu garaia arinago egite aldera aisialdiari lotutako edukiak argitaratzeari ekin zion. Bertsolaritza, argazkigintza, literatura, komikigintza, umorezko esketxak...

- **Audientzia:** Paperean ez da etenaldirik izan, eta sarean lana biderkatu egin da. Lan gehigarri horren audientzia nabarmen handitu da. Aiurri.eus eta izen bereko sare sozialen audientzia (Twitter, Facebook, Instagram) Euskal Herriko toki hedabideen artean gehien hazi den hedabidea da, TOKIKOMek emandako datuen arabera.
- **Publizitatea:** Edukien lanketan lan gehigarri hori eman den bitartean, egoera paradoxikoa bizi da: Diru-sarrerak nabarmen jaitsi direla. Santa Krutz jaietako publizitatea %100 galdu da, ohiko bezeroena %80a eta TOKIKOMETik datorrena %40a. Martxoa-uztaila bitarte 20.528,81 euroko jaitsiera aurrikusi du Aiurrik.



Banatzaileek lan egin ahal izateko ezinbestekoak. AIURRI

Prebentzio neurri guztiak hartuta

Osasun Alerta ezarri zenetik, lantaldearen gehiengoak etxetik ari da lanean. Diseinatzailea, publizista eta administrariaren egoera horixe da, baita erredaktore gehienena ere. Gutxi batzuk daude Arantzibia plazan lanean.

Aiurriren ekoizpen-katean banatzaileena azken katebegia da. Zer egin banaketarekin? Banatzaileek nola egin behar dute lan? Martxoaren erdialdeko egun haietan bi galdera horiek eguneroko kezka iturri bilakatu ziren. Aiurriko ekoizpenari eustea erabaki zen, eta tiradan ez zen murrizketarik izan. 4.000 ale argitaratzen dira, astero-astero.

Aldaketa bakarra banaketa sisteman eman zen, Martxoaren 18ko, 27ko eta apirilaren 3ko astekariak kioskoetan banatu zen, eta harpidedunek Aiurri eskuratzeko toki señalatueta joan behar izan zuten. Banatzaileen osasun ona bermatzea izan zen lehentasuna, lehen egun haietan.

Pandemiaren egoera bideratzen ari zela aditzera eman zenetik banatzaileek ohiko lanaldiari ekin zioten. Azken lau Aiurri astekariak harpidedunen etxeetara iritsi dira Andoingo kasuan. Eta urnietarrek ere etxean bertan jaso dituzte azken lau astekariak. Hori bai, prebentzio neurri guztiak hartuta aritu dira lanean. Maskarak, eskularruak, gel hidratantea eta, bazpaere, baita Aiurri hitza argi agertzen zen txalekoa ere.

Aiurri.eus guneak jauzi kualitatiboa eman duen urtea

TOKIKOMen eskutik, duela bi urte edizio digitalaren berrikuntza fasean murgildu zen Aiurri. Webgunea berritzeaz gain, argazki-bildumenzein bideoen ediziorako eta zabaltze lanetarako Tokimedia egitasmoa abian jarri zen. Gastu ekonomiko erantsiak ekarri zituen, orduko hartan bere gain hartzeko modukoak izan zirenak. Eta inbertsio horrek bere fruituak eman ditu.

2020an hasita, aipamen berezia egin behar zaio urtarrean Oscar Villafañe Merino ETArekin bikotizari eginiko elkarriketari. Albiste horrek eskualdeko mugak zeharkatu zituen, Euskal Herriko eta estatu mailako kazetari eta hedabide askoren arreta bereganatuz.

Otsailaren amaieran Wikimedia egitasmoaren aurkezpena egin zen, zeinean 1990. hamarkadako ehunka argazki



digitalizatu eta sareratu ziren. Argazki horiek herriarren arreta bereganatu zuten, eta hainbat aste argazki horiek andoaindar askoren artean bolo-bolo ibili ziren.

Martxoaren erdialdera iritsi zen kofinamendurako agindua. Eta hortxe biderkatu zen Aiurri.eus webguneako informazio jarria. Webgunean Aiurrik, batz bestea, 2020rako asteko 25,5 albiste eta 6,6 bideo argitaratzeko aurrikuspenean zuen. Hauexek izan ziren, ordea, datuak krisiaren hasierako lehen asteetan:

- Martxoaren 9tik 15era 59 albiste argitaratu dira, 20 argazki-notizia, 10 albistadun argazki-galeria eta 21 bideo

(17 ekoizpen propioak, 4 kanpotik ekarritakoak).

- Martxoaren 16tik 22ra 63 albiste argitaratu dira, 27 argazki-notizia, 4 albistadun argazki-galeria eta 35 bideo (33 ekoizpen propioak, 2 kanpotik ekarritakoak).
- Martxoaren 23tik 29ra 60 albiste argitaratu dira, 26 argazki-notizia, 9 albistadun argazki-galeria eta 37 bideo (30 ekoizpen propioak, 7 kanpotik ekarritakoak).
- Martxoaren 30etik apirilaren 5era 62 albiste argitaratu dira, 20 argazki-notizia, 8 albistadun argazki-galeria eta 35 bideo (25 propioak, 10 kanpotik ekarritakoak).
- Apirilaren 6tik 12ra 60 albiste argitaratu dira, 13 argazki-notizia, 6 albistadun argazki-galeria eta 48 bideo (30 propioak, 18 kanpotik ekarritakoak).

Hazkunde nabarmena sare sozialetan

- **TWITTER:** Hazkunde handia izan du, bereziki azken hilabeetan. Urtarrean 21 jarraitzaile gehiago batu zituen @aiurri kontuak, otsailaren 22, martxoan 113, apirilean 84... Egun, 2.136 jarraitzaile ditu Aiurriko Twitter kontuak.
- **INSTAGRAM:** Otsailaren 1.000 jarraitzaile inguru zituen, eta hiru hilabete beranduago 1.288 jarraitzaile izatera iritsi da. Argazkien partekatzea oso handia izaten ari da, eta jarraitzaileekin feedback-a areagotuz doa. Besteak beste, "Story" delakoen bitartez.
- **FACEBOOK:** Otsailaren 2.734 jarraitzaile zituen, eta hiru hilabete beranduago 2.999 jarraitzaile izatera iritsi da. Aiurri.eus webguneako edukietara iristeko gehien erabiltzen den sare soziala da. Facebook bidez, gainera, euskalduna ez denak ere Aiurrik sortutako argazkiak eta bideoak kontsumitzen ditu. Hizkuntzaz harago doan irismena lortu du Aiurrik.

POSTONTZIA

DENDARI ETA MERKATARI TALDEA URNIETA

Urnietako Udaleko merkataritza mahaiari proposamena

Badira 12 urte, Urnietako merkatarí, ostalari eta zerbitzuetako kideak elkartzen hasi ginela, sektoreak gure herrian bizi zuen egoerarekin kezkatuta.

Ordutegieraz, saiakera desberdinak egin ditugu, gure sektoreak herri honen bizitzan duen garrantzia ikusarazteko, baina nonbait, ez dugu asmatu edo nahiko babesa izan (edo biak batera), izan ere odolustea etengabea izan baita; gainera iruditzen zaigu, gure ongizatea kudeatzeko konfiantza eman genien gobernu taldeek, gure ustez, inoiz ez ditela eman gaiari eman behar zitzaion garrantzia. Horren eredu, nahiz eta saiakera desberdinak egin, benetako politikak martxan jarri ez izana, eta horren lekuko, oraindik osatu gabe dagoen sektoreko zentsoa da. Egia da, pauso sendoak eta egiazkoak ematen hasita geundela mahai hau eratu zenetik, baina moxorroak harrapatu gaitu, eta beharrak areagotu.

Gaur hona dakartzagun proposamena ez da zorurik gabeko zakura dirua botatzea, baizik eta aurrera begirako inbertsio bat egitea, izan ere, hau ez baita dirulaguntza hutsa, une zail hau bizitzen ari direnei, esker ona eta atxikimendua adieraztea baizik. Gogorak izan ziren, maiatzaren 5ean Lekaion elkartu ginenok entzun genituen adierazpenak.

Badakigu, eskatzen dugun kopuruak ez dituela beteko askoren beharrak, baina gutxieneko kopuru bat adostea erabaki genuen. Ondorioz, maiatzaren 5ean, Lekaion izan ginen merkatarí, ostalari eta zerbitzuetako kideak, diru laguntza zuzena eskatzen dizuegu, bi hilabete hauetan ateak itxita izan dituzten guztientzako eta berdín ateak irekita ere, etekinik izan ez dutenentzako. Besterik gabe, gure proposamena onartuko duzuen itxaropenean.

Adeitasunez, maiatzaren 5ean bildutakoak.



POSTONTZIA

IPAR HAIZEA PLATAFORMA ANDOAIN

Zorionak Andoain

Andoainen orain arte inoiz lortutako gaikako bilketarik handiena lortu dugu martxoan: %68,14. Jarrai dezagun hondakinak gaika modu egokian sailkatzen! Datu batzuk ematearren: organikoa ia 16.000 kg gehitu da hilabete batetik bestera.

- Beira, ontziak eta papera-kartoiak ere igoera nabarmena jasan dute.
- Errefusa ere igo bada ere 10.000 kg pasatxoan, gaikako bilketa kg askoz gehiago batu dira proportzioan (hondakinen sorkuntzak ere gora egin du).

Eskura dugu andoaindarrok hondakinen bilketa %70a gainditzea! Denon artean lortuko dugu!

Hondakina	Urtarrila	Otsaila	Martxo
Biohondakina	20.600	21.690	21.25
Errefusa	121.289	116.095	126.52
Beira	34.620	32.578	43.43
Biohondakina	74.080	74.370	90.23
Ontzi arinak	43.898	43.254	52.25
Papera	48.891	39.400	46.41
Kartola	8.640	9.200	10.73
Arropa	6.472	5.012	5.69
Landare olioa	538	1.243	62
GUZTIRA	359.028	342.842	397.16
GAIKA	%66,22	%66,14	%68,1

Iturria: Mankomunitatea.



POSTONTZIA

SANTA KRUTZ JAI BATZORDEA ANDOAIN

Santa Krutz jaien balorazioa

2020ko festetako balorazio bilera egin ondoren, festak oso positibotzat kalifikatu ditugu. Partehartze handia izan da eta jendeak ilusioa eta gogoazaldu dute. Balorazioan puntu hauek nabarmendu ditugu:

- Festen identitatea mantentzea. Andoaindarrek identifikatuta sentitzen gara jai hauetako hainbat eta hainbat ekintza zein emanaldirekin eta ezohiko egoera honen aurrean aurten antolaketarako edukitako oztopo guztien gaineratik hori bermatzen saiatu gara. Modu ezberdin batean baina festen esentzia etxe eta familietara eraman dugulakoan gaude, Jai Batzordetik festa hauetan bultzatu nahi ditugun baloreak aurrean izanez (euskara, feminismoa, berdintasuna, auzolana, partehartzea...) eta jendeak Santa Krutz festak identifikatuz eta ospatuz osatutako online egitarauarekin.
- Herriarren konpromezua eta erantzuna. Festen identitate honen lanketa ezinezkoa izango zen herriarren prestutasunik gabe. Kontuan hartuta apirilak 20 inguruan hartu zela festak online egiteko erabakia eta zein margen gutxiarekin jarri garen kontaktuan egitarau honetan parte hartu duten eragile zein pertsonekin, zoriontzekoa eta eskertzekoa da hauek erakutsitako prestutasuna parte hartzeko orduan. Festa hauengana

sentitzen dugun maitasuna herriko jendearengana sentitzen dugun maitasun bera da, herriko jendeagatik direlako posible jai hauek.

Udaletik hartutako erabaki batzuekiko desadostasuna. Jai hauek antolatzeko orduan ulertzen ez ditugun hainbat egoera jazo dira eta horiekiko desadostasuna adierazi nahi dugu. Lehenik, legeak ezarritako segurtasun neurri guztiak hartuz bi trikitilariren kalejira antolatu nahi genuen festen itxiera sorpresa moduan inguruko herrietan (Billabona, Legazpi...) egin den bezala, baina alarma egoeran ezinezkoa zela adierazi zigun Udalak. Era berean, Udalak bideo bat emititu zuen maiatzaren 3ko eguerdian hain juxtu, Jaietako egitarauetan Balkoietako Tanborrada programatuta zegoenean. Ez dugu ulertzen nolatan Jaietako egitarauaren berri jakinda, besteak beste publikoa zelako eta festen hasiera baina ia astebate lehenago eskura zutelako, ordu eta egun berdinean programatu zuen Udalak bideo hau. Azkenik, apirilaren 30ean, festen hasierako egunean Udalak publikatu zuen Andoaingo kale huts, hil eta tristeak islatzen dituen bideoarekin ez gatoz bat eta ez gaitu irudikatzen, nahiz eta kontsultatu gabe publikatu eta Jai Batzordearen logoa jarri zuten bertan gure baimenik gabe. Andoain bizirik dagoela garbi geratu da pasa den asteburu honetan,

eguneko edozein momentutan burua altxa eta herriko edozein balkoietara begiratu besterik ez zegoen hortaz konturatzeko. Santa Krutz jaietarako diru partida. Festa hauetara zuzenduta dagoen diru partidakoa da gutxi gorabehera. Aurten herriarren borondatez osatutako egitaraua izanik ez dugu ia gasturik izan. Hala ere, Jai Batzordetik detaile bat eduki nahi izan dugu egitarauan parte hartu duten pertsona, eragile zein talde guztiekin beraien esfortzu zein konpromezua eskertzeko eta Udalak onartu digun diru kantitate bat hauengana bideratuko da. Detaile hau, ordea, ez da esku dirutan emango. SALKIN-ekin harremanetan jarriko gara eta herriko komertzioetan gastatzeko 'bale' moduan emango da, nolabait, festetara bideratuta zegoen diru partidako zati bat egoera zail hau pairatzen ari diren komertzioetara bideratuz. Era berean, erabili ez den eta herrira zuzenduta zegoen diru partidaren gainerakoa komertzioak lagundu eta hauek suspertze aldera bideratzea proposatzen diogu Udalari Jai Batzordetik, egokiena ikusten duten formula erabiliz. Santa Krutzak aurrera eraman dira. Ez nahi genuen moduan, zer esanik ez nahi genuen giroan. Baina festak ospatu dira eta esker onik besterik ez dugu Batzordekideok hau posible egin duzuen pertsona guztientzat.

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urnietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publicitate@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:

ALJATUAK:

TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hikuntza Berlindtasunerako Zuzendaritza

ZIURTAGIA:

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.

AIURRIK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



Kale Nagusiko merkataritzan normaltasun berria antzematen da, pixkanaka-pixkanaka. AIURRI

Normaltasun berrirantz

Merkataritzaren ateak normaltasun berrira egokitzen ari dira, maiatzaren 11tik aurrera bereziki. Aste luzez itxita izan eta gero, dendari askok negozioari berrekiteari ekin zioten. Ostalaritza alorreko gehiengo osoak ireki gabe jarraitzen du

Erredakzioa ANDOAIN

Denda txikiak zabaltzearekin batera, kaleak bizitasuna hartuz joan ziren. Eta horrek oinezkoen eta erosleen aldartea hobetzen du, bizimodua normaltzen ari den seinalea baita. Prebentzio neurri zorrotzak bete behar dira, eta denda ia guztietara sartzeko zain egon beharra dago. Baina dagoeneko kaleak ez dira pandemiaren hasierako gune bakarti eta triste haiek. Panorama aldatuz doa.

Aldaketarik somatu ez duen sektorea ostalaritzarena da. Gobernu ezberdinen arteko araudiak aplikatzeko garaian egon den nahasmenak ezjakintasuna areagotu du. Ostalaritzaren berrabiaraztea sustatzeko, Andoaingo Udalak terraza duten negozioei lur azalera bikoitza erabiltzeko baimena eman die. Lehendik zuten terraza kopurua erabiltzeko espazio gehiago izango dute, horrela. Interesa duten ostalariek aukera berriaz baliatzeko baimena eskatu beharko dute Udalarekin. Kasu guztietan, terrazak gehienez ere gaueko 23:00ak arte egongo dira zabalik.



Aker taberna, maiatzaren 11n ateratako argazkian. AIURRI



Karrikak ateak astelehen goizean ireki zituen, berriro itxeko. AIURRI

Irizpide berriak

Zer dagoen baimenduta eta zer ez, nahasmena izan da asteburu osoan zehar. “Osasun Alarmari buruzko irizpideak Ertzaintzan eta Udaltzaingoetan” izenburupean, Beterri-Buruntzako Ertzaintzaren buruak eguneratutako araudia helarazi zien tokiko hedabideei. Hauexek, merkataritzari eta ostalaritzari lotutako xehetasunak:

Ostalaritzako eta jatetxeetako terrazak ireki daitezke?

Bai, iazkoaren aldean, %50eko mugarekin. Edonola ere, mahaien arteko gutxienez 2 metroko distantzia-fisikoa gorde behar da beti.

Dena den, udalek mahai kopurua handitu dezakete, baldin eta azalera ere proportzionalki handitzen bada.

Terrazetan jendea elkartu daiteke, edariak eta janaria kontsumitzeko, gehienez ere hamar pertsona mahai edo mahai-talde bakoitzeko. Ordu-tegi-muga itxiera-ordutegia izango da, 23:00ak.

Terraza-zerbitzuan beti higie-ne edota prebentzio-neurriak bete behar dira, baita langileentzako higie-ne edota prebentzio-neurriak ere.

Elkarte-gastronomikoen, txokoen eta aisialdirako-lonjen barruan ezin izango da jarduerarik egin, itxia jarraituko baitute.

Okindegiek saldu al dezakete edaririk, kafea barne dela?

Eramateko bakarrik sal ditzakete produktuak, inola ere ez establezimenduan kontsumitzeko. Terraza baldin badaukate, ostalaritza-zerbitzuentzat ezarritakoa bete beharko dute.

Zein merkataritza-lokal egon daitezke irekita?

Printzipioz, Alarma-egoeraren hasieratik irekita egon direnak, hau da, janari dendak, gozoki-dendak eta gozotegiak barne, edari dendak, farmaziak, osasun-zerbitzuak beren osotasunean, optikak, ortopediak, higie-ne produktuen dendak, prentsa eta paper dendak, gasolindegia, estankoa, teknologiko eta telekomunikazioetako produktuak, etxeko animalientzat janaria saltzen dutenak, Internet, telefono edo posta bidezko merkataritza-dendak, tindategiak, arropa-garbitegiak eta albaitaritza-klinikak, ibilgailuak alokatzeko enpresak, banku-erakundeak, notarioak, aholkularitzak eta aseguru-erakundeak, abokatu-bulegoak, gestoriak eta finken administrazio bulegoak. Dena den, hemendik aurrera, langileentzako zein establezimenduetarako higie-ne edota prebentzio-neurriak izan beharko dituzte.

Horiez gain, txikizkako merkataritza-lokalak eta zerbitzuak ematekoak ere irekita egon daitezke, salbu eta 400 metro karratuko azaleratik gorakoak, merkataritza-zentroak direnak, edo merkataritza zentroaren barruan egonda kanpotik zuzenean sartzeko aparteko biderik ez dutenak.

Baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Edukiera %30ean gutxitzea. Solairu bat baino gehiago egonez gero, solairu bakoitzean edukiera-proportzio hori bete beharko da.
- Gutxienez bi metroko distantzia bermatuko da, eta hori ezinezkoa bada, bezero bat baino ezin izango da barruan egon.
- Arreta-ordutegi bat finkatuko da eta 65 urtetik gorakoei zerbitzua lehentasunez emango zaie.
- Establezimenduek, langileek eta bezeroek bete beharreko higie-ne neurriak bete beharko dira, baita edukierarekin lotutako neurriak ere.
- Establezimenduek eta lokalek jendaurrean jarri beharko dute lokal bakoitzaren gehienezko edukiera zein den; edukiera hori bermatu beharko dute eta lokalaren barruan pertsonen arteko gutxienez bi metroko distantzia gordetzen dela ziurtatu.
- Establezimendu horiek erositako produktuak lokalean jasotzeko aukerak eman ditzakete, baldin eta modu mailakatu batean egiten bada, lokalean edo haren sarreran jende-pilaketa ekiditeko moduan.



Odol-emaileen saioa, astelehen iluntzean. AIURRI

Odol emaileen erantzun bikaina

Urnietako odol emaileen erantzuna bikaina izan zen, beste behin ere. Telefonoz hots eginez, berehala bete ziren alde ezarritako 30 plazak. Lekaio kultur etxean egin zen odol erauzketa, joan zen astelehenean

Xabier Lasa URNIETA

Normaltasun osoz igaro zen asteleheneko saioa. Zenbaitek, umorea erabilia, Urnietako talde antolatzaileak prestatu ohi dituen pintxo goxoak faltan botatzen zituela adierazi zuen; aurretik prestatutako sandwich komertzialekin konformatu behar!

Herrikideek bezalaxe, Udal ordezkariak ere odola emateko

prestutasuna izan zuten. Besteak beste, Mikel Pagola alkateak eta Jorge Segurado eta Agurtzane Mercader zinegotziek.

Urnietara gerturatu zen osasungintzako profesional taldeak odola emaileei ohiko azterketa egin zieten. Hurrenkera honetan: medikuarekin elkarriketa, tentsio arterialaren neurketa eta odol lagin batekin anemia maila

neurtzeko hemoglobinarekin kontrola. Kontuan hartuta larrialdi egoera bizi dugula, baten batek galdetu zuen ea ez ote zuten koronabirusaren testa egin behar. Erantzun ziotenez, ez da testa horren beharrik. 450 mililitroko odol-poltsa bana ondo katalogatu ondoren laborategietan aztertzen da.

Joxe Mari Campos eta Enkarni Mujika Lekaio odola ematera hurbildu ziren urnietarrak dira. Camposek urtarrean jubilatuen egoitzan eman zuen odola azkeneko, "ordutik gauzak aldatu direla konturatu naiz. Medikua eta erizainak zorrotz ari dira hartzen osasun neurriak, ondo ikasita daukate odol erauzketa bakoitzeko zer eta nola desinfectatu behar den".

Camposek igandean mezua jaso zuen. "Odola beharrezkoa dela jakinarazi zidaten antolatzaileek, eta animatu egin naiz, libre samar bainabil arratsaldeetan". Hila-bete eta erdi etxean telelanean darama Camposek. "Lantegian



Enkarni Mujika. AIURRI

"EZIN DUT ULERTU TABERNETAN EGOTeko PREMIA HORI"

ENKARNI MUJIKAK, ODOL-EMAILEA

etxean aritzeko baliabideak eskaini zizkiguten eta goizetan bost orduko lanaldia egiten dut. Denetarik iritziak zabaltzen ari dira telelanean inguruan; ni, behintzat, nahiko ondo moldatu naiz egoerara. Etxean bi seme-alaba dauzkut, 14 eta 16 urtekoak dira eta berehala ulertu zuten egoera, eta errespetatzen dute lanerako behar den espazioa eta lasaitasuna. Gainera, eurek ere eskolako lanak dauzkate, eta teknologia berriei denbora eskaintzen die. Daukaten adinagatik, suerte pixka bat eduki dut salbuespen egoera honen baitan. Lankideen artean ezagutzen ditut ume txikiak dauzkatenak, eta horiek nekezago daramate telelana".

Enkarni Mujika Lekaioa hurbildutako beste urnietar bat da. "Goizetik deika jardun dut, baina telefonoak komunikatzen ematen zuen denbora guztian. Arratsaldean bertan Lekaioa hurbiltzea erabaki dut. Batentzat tokia bazegoela esan didate, eta holaxe, besoa jarri, eta bete dut egin beharrekoa".

Mujikak ezin hobekiago eza gutzen ditu osasun krisialdiaren gora beherak, adineko jendeari zaintza lana eskainiz joaten baitaio ia egun osoa. "99 urte betetzera doan ama etxean dauka, eta jubilatuta dagoen senarra eta biok zaintzen dugu. Eguna nahiko beteta daukat, egia esan. Goizean 06:30ean esnatzen naiz



Joxe Mari Campos. AIURRI

"BEHARREZKOA DELA ESAN ZIDATEN ANTOLATZAILEEK, ETA ANIMATU EGIN NAIZ"

JOXE MARI CAMPOS, ODOL-EMAILEA

eta ondoren amari jaikitzen laguntzen diot. Hori eginda, Hernaniko zahar egoitzara joaten naiz, bertan klinika laguntzailea naiz".

Hernaniko egoitzan salbuespeneko egoerara ondo moldatu direla aitortu du Enkarni Mujikak, nahiz bertako egoiliarrek arrisku-taldekoak izan. "Erangarria egiten ari zait egoitzako zeregina, baina horri etxekoa batuz gero, orduan gauza konplikatzeko hasten da. Hemen goa eginda, banoa korrika etxera". Enkarni onartzen du okerrera atzean uzten ari garela, baina gehitu du inor ezin dela erlaxatu. Alde horretatik, kezkatzeko moduko jarrerak ikusi ditu azken egunetan. "Hona nentorrela, taberna bat edo beste irekita ikusi dut, eta terrazetan jendea elkarren ondoan. Ezin dut ulertu zer dela-eta jendeak daukan antsia edo premia hori tabernan egoteko... Gauden tokira iristeko hainbesteko sakrifizioa egin eta gero, orain dena arriskuan jarri behar ote dugu?".

Mujikak ulertzen du errealtatearen pertzepzioa zeharo alda daitekeela bizipen pertsonalaren arabera. "Telebistan esan eta esan ari dira kontuz ibiltzeko, baina asko ez dira konturatzen huseria batek dena hankaz gora jarri dezakeela. Jakingo balute zaharren erresidentzietan zenbaterako kontrolak egiten ditugun...".



Urnietako
udala



Bazkardon dago baserri dotorea eta zaindua, A-15 autobideari itsatsita. Egun hauetakoaren batean eraistekoak dira. AIURRI

Illarramendi baserriaren azken orduak

1615. urteko Udal dokumentuetan jada aipatzen da Bazkardo aldean dagoen baserria. 400 urteko baserria historiara pasako da, hurrengo orduetan. Eraikina eraitsi eta lur eremu zabal hori industria jarduera ezberdinetarako baliatuko dute

Xabier Lasa ANDOAIN


Buruntza auzoan kokatzen den Illarramendi baserria eraisteko-tan dira, hurrengo egunetan. Industriegunea eraikitzeke egitasmoa dago bertan.

Baserri bikaina, dotorea da Illarramendi, inondik ere. Lur-sail zabaleko baserria izan zen iraganean, baina murrizten joan da bere eremua hamarkadaz

hamarkada, N1 errepidea, Ama Kandida etorbidea zein Urumea-ko A15 autobidearen eraikuntza dela medio. Aurreko astean lur mugimenduko lanak hasi ziren, eta datozen egunetan baserria eraitsiko dute. Azken mendeetako eraikina historiara pasatzear dago, beraz. Etorkizun hurbilean industriarako eremu bilakatuko dute, eta 91.280 metro karratuko

lur azalerako espazioa hainbat jarduera ekonomiko burutzeko bideratuko da; antza denez, eremu handiko supermerkatu bat ipiniko dute bertan. Ondoan dagoen enpresa handitzeko baliatuko dute ere.

Aiurrik baserriari eta bertan bizi izan den Jauregi familiari buruzko erreportajea argitaratuko du, hurrengo asteetan.



Dantzariaren eta musikariaren arteko aurrekua maila handikoa izan zen. AIURRI

Kaletxikiko animatzaile nagusiei merezitako omenaldia

Larunbat iluntzean, ezustean, auzotarrek Amaia Bakero, Arkaitz Muratori eta Eneko Urdangarin omendu zituzten

Erredakzioa ANDOAIN

Martxoaren erdialdera konfinamendu neurri zorrotzak ezarri zituzten. Eta geroztik, hainbat egunez, herritarren arteko harremanetarako bide bakarra leihoz leiho eta balkoitik balkoira sustatutakoa izan zen. Auzotarren aldarte psikologikoari eusteko, Amaia Bakero auzota-

rrak hasiera-hasieratik paper aktiboa izan zuen. Ezin ahaztu Arkaitz Muratori senarra eta ia egunero kamara eskuan ibili den Eneko Urdangarin ere. Joan zen larunbatean, konfinamenduaren 57. egunean, auzotarrek merezitako omenaldia eskaini zieten. Luze eta zabal ikusgai dago bideoa, Aiurri.eus gunean.



Loreak eskuan eta txapela buruan, omenduek esker ona adierazi zieten bizilagunei. AIURRI

UDALEKU IBILTARIAK

2020

DO BE R

Udaleku Txikiak
 Uztailak 26-31 "Aralar"
 (2008-2010 urteetan jaiotakoak)
 Prezioa:
 170€ / Bazkideak 140€

Udaleku Handiak
 Uztailak 13-24 "Urola-kosta"
 (2005-2007 urteetan jaiotakoak)
 Prezioa:
 250€ / Bazkideak 210€

Informazio gehiago eskuratzeko:
www.dobera.eus
 Larramendi kalea 11, behea
 20120 Hernani (Gipuzkoa)
 E-maila: dobera@dobera.eus
 Telefonoak: 943 33 27 99
 662 406 692

***OHARRA (COVID-19 DELA ETA):** Printzipioz, urtero bezala, Udalekuak chi bezala antolatuko dira. Eta izen ematearekin batera, ordainketa ere egin beharko da. Hala ere, Udaleku Ibiltariak bertan behera geratuz gero, dirua bere osotasunean itzuliko da, erabakia hartu bezain laster.

IZEN-EMATEA WEBGUNEAN IZANGO DA
www.dobera.eus



Jokin Lizeaga mendi lasterkaria.



Mikel Alonso txirrindularia.

Goi mailako kirolariak, konfinamendua bukatuta

Jokin Lizeaga mendi korrikalaria, Mikel Alonso eta Mikel Iturria txirrindulariak, Nahikari Garcia futbol jokalaria eta Julen Gabirondo segalariaria konfinamenduaz eta etorkizun hurbilaz aritu dira

Hiru galdera goi mailako kirolariei

1. Zer moduz moldatu zara konfinamendu garaian? Entrenatzeko aukerarik izan duzu? Etxean aritu beharra nekagarria egin zaizu?
2. 10 egun atzera maila handiko kirolarietxetik kanpo, ordutegirik gabe prestatzeko baimena jaso zenuten. Baliatu duzu? Zer sentitu duzu berriro etxetik kanpo kirola egitean?
3. Urte erdi luzea geratzen da 2020a bukatzeko. Zer espero duzu urteko bigarren sei hilekoan?

Andoni Urbistondo URNIETA

Hiru galderei erantzutea eskatu diegu Urnietako goi mailako bost kirolariei.

Jokin Lizeaga,
mendi korrikalaria

1 Ondo eraman dugula esango nuke. Aukera onak eman dizkigu lasai egoteko, aukera politak izan ditut familiarekin batera egoteko. Inoiz egin ez genituen gauzak egiteko, edo presaka egiten genituenak, adibidez. Kirola egiteko auke-

ra izan dut. Astean behin Lizartzan daukadan baserrira joan izan naiz, hango astoei eta jana ematera, eta han, natura inguruan, haizea hartu eta gorputza estutzeko aukera ona izan dut. Etxean eliptika tramankuluan aritu naiz, eta 22 urte erabili gabe neukan arrabola ere ba neukala jabetu naiz. Han egunero beti ordubetxoko bat edo ibili naiz. Ia egunero egin dut kirola. Ondo moldatu naiz.

2 0 fasea delakoan, askatasun puntua gustura hartu dut, nahiz eta dosi txikia izan. Pasa den larunbatean, mendira joateko izan genuen lehen egunean, Buruntzara igo nintzen goizeko 6retan, jendetza igo baino lehen, eta bestela ere korrika saioak egin ditut egunero. Beti eguna argitzear zela, goizean goiz. Ordu eta erdi, edo bi orduko saioak, gutxi gorabehera. Espainiako Kirol Batzorde Gorenak (CSD) baimena eman die, digu, Goi errendimenduko kirolariak garenok (gaztelaniaz DAN, Deportistas de Alto Nivel), eta ordutegirik gabe eta probintzia osoan entrena gaitezke. Goizeko 6retan izan beharrean beranduago jarduteko aukera izango dut, arau horri esker. Bakarren batzuk haserretuko dira, agian, orduz edo lekuz kanpo entrenatzen ikusten banaute, oihuak edo hitz itsusiak esanez, baina saiatuko naiz beste herritarrek dituzten antzeko mugak errespetatzen.

3 2020an ez daukat lehiaketetan parte hartzeko asmorik buruan. Oraindik bistan eta orkatiletan arazoak ditut, eta bestetik Covid 19ak lasterketarik egiten utziko ote duen ere ezin jakin. Gogoia, bai, badut, lehiatzeko, baina aukera sortu arte mendiaz gozatzea izango da helburu bakarra.

Mikel Alonso, Euskadi Fundazioko txirrindularia

1 Nahiko ondo eraman dut konfinamendua. Egunen baten halako ahulaldiren bat izan dut, baina orokorrean ondo moldatu naiz psikologikoki. Lehen bi astetan egurrean aritu nintzen, sasoi puntu ona mantentzeko, ez genekielako egoera zenbat luzatuko zen, baina gero, luzerako izango zela ikusita, bi astez lasaitu egin genuen erritmoa. Arrabola neurrian egin behar da, nekagarria bilaka daitekeelako egunero gauza bera egiten. Egunduean bi ordu, bi ordu eta erdi egin, ondo, eta hurrengoan arrabolean hasteko kemenik ez edukitzea gerta liteke.


2 Behin baimena eman digutela, gozatzen ari naiz. Profesionalak gara, eta gozamina da errepidera irtetea. Bizikleta gainean jarri nintzen aurreneko egunean zalantza sentitu nuen, bizikletan ibiltzea ahaztu izan balitzait bezala, gurpilak zulatuta neramatzala uste nuen. Aste lasaia izan zen lehengo asteakoa, tonua berreskuratu, egunero bizikleta



Mikel Iturria txirrindularia.



Nahikari Garcia futbolaria.



Julen Gabirondo segalaria.

tan, eta pixkanaka intentsitate eta karga gehiago sartzen.

3 Denboraldia, ikusiko dugu ze martxa hartzen duen. Itxura du abuztuan hasiko garela, baina ziurra ere ez da. Ziurgabetasun handia dago, eta egoera zaila da, ezin espekulazioak egin. Ez dakigu ze lasterketa korrituko ditugun, eta gure aldetik, zaintzea, ondo entrenatzea eta nire maila onena emateko aukera izatea, hori bakarrik dago gure eskuetan. Ez dago besterik.

Mikel Iturria, Euskadi Fundazioko txirrindularia

1 Konfinamendua nahiko ondo eraman dut. Momentu txarrak egon dira normala denez, luze egiten baita egun guztia etxean sartuta egotea, baina orokorrean ondo eraman dut. Ahal izan dudana aktibitate gehiena egiten saiatu naiz, ez entrenatzeagatik soilik, burua okupatuta edukitzeko ere bai. Arrabola saioak egin ditut 2-3 aldiz egunean, core eta mugikortasun ariketak ere bai... baina beti zentzu edo perspektiba jakin batekin, urte bukaeran etor daitezkeen helburuei begira.

2 Lehenengo egunean arraro samar sentitu nintzen errepidean. Nik uste baino gehiago aldatzen da pedal-kolpea arraboletik errepidera. Egun asko izan dira errepidea ukitu gabe, eta hori antzeman dut. Azken egun hauetan hanketan baino, eskuetan, lepo eta bizkarrean antzeman dut nekea... pentsa, hatzetan babak ateratzen ari zaizkit berriz... Ez dut imajinatu ere egin nahi pilotari batek zer notatuko duen berriz ere frontoira itzultzean.

3 Urteko bigarren erdiari begira momentuz ez daukat helbururik. Beraz, egunez egun joan, eta ea zer gertatzen den egutegiarekin. Oraingoz ez daukagu lasterketarik konfirmatuta, eta antza denez Espainiako Vueltak ez digu gonbidapena luzatu nahi izan, nahiz eta lasterketa gure etxetik atera.

Nahikari Garcia, Realeko jokalaria

1 Zortea eduki dut, etxean kirola egin ahal izateko espazioa daukadalako. Etxean halako gimnasio txiki bat atondu nuen, eta Gabonetan gurasoei bizikleta estatiko bat ere oparitu nien, eta horrekin kirola egin

dut, gutxieneko bat behintzat sasoi mantentzeko. Garajeko pasilloan ere ariketak egin ahal izan dut. 50 metro edo, izango ditu, eta han ibili naiz. Konfinamendua iritsi zenean errekuazio lanetan ari nintzen, orkatilako lesioagatik, eta des-konektatzeko aukera eman dit errekuazio lan horrek.

2 Konfinamendua bukatuta, paseo txiki batzuk egin nituen pasa den astean, baina beti ere errekuazio ariketak lehentsiz. Pixkanaka paseo horiek luzatzen joan naiz denboran, kilometro batzuk pilotzeraino. Eskertzen da, giroz aldatzea, zeren eta momentuz ezin dugu zelai gainean aritu, eta kaletik korrika ibili ahal izatea sentazio ezberdina da.

3 Etorkizunaz, Liga amaitutzat eman dute, eta penatuta nago, niri jokatzeko gustatzen zaidalako. Behar dut, adrenalina pixka bat askatzeko, lehiakortasun hori erakusteko, baina ez da posible izango. Aurre-denboraldia iritsi bitarteko epea luze egingo dela pentsatzen dut, baina egoera onartu beste erremediorik ez dugu. Futbolaren bi aurpegiak ikusi ditugu.

Mutilen kasuan diru asko mugitzen da, aurrera egingo dute euren lehiaketatan, eta gure kasuan ez, baina erabakia ez zen erraza. Hilabete pare batean lanean jarraitu eta lehiaketa lehenbailehen bueltatzeko zain egon beste aukerarik ez dugu.

Julen Gabirondo, segalaria

1 Suerte handia daukagu Xoxokan bizi garenok, landa eremuan. Mendia ezin izan dugu joan, baina hemen etxe gehienetan daukagu loretoxi txikiren bat, lur sailen bat sasiak mozteko eta beste, eta alde horretatik entrenitzeko edo haize pixka bat hartzeko aukera izan dugu. Lanean ere ibili naiz, hasierako bi asteak kenduta, eta bi aste horiek gustura hartu nituen, familiari bestela eskaintzen ez diodan denbora eskainiz. Halako oporraldi txiki bat izan zen. Etxean badut korrika egiteko halako zinta bat, kilometro batzuk egin, abdominalak eta horrelaxe.

2 Konfinamendua bukatu den honetan, fisikoki ondo sentitu naiz. Hori bai, segan oso gutxitan ibili naiz, egun batean edo bitan, hemen etxe ondoan dau-

kagun lur sail txiki bat mozteko. Hemendik aurrera aukera gehiago izango ditugulakoan nago, baina egoera poliki doa. Ikusi dugu momentuz herritik ezin dugula irten, eta horrek, noski, zaildu egiten du egoera.

3 Esperantza handirik ez daukat, zintzoa banaiz. Txapelketak egingo diren ez dakit. Martxoan egiten dira zozketak, datak erabaki, eta federazioaren aldetik berririk ez daukagu. Txapelketekin aurrera egiteko asmoa zutela esan ziguten apirilean, baina ez da mugimendu askorik ikusten. Motibazioz ere apal samar nabil. Txapelketa atarian aurkariak eta beste aztertzen dituzu, borrokarako grina esnatzen zaizu, eta orain ez dut halakorik sumatzen. Deskuiduan txapelketarik ez dela egingo esaten badute, onartu beste erremediorik ez litzaguke geratuko, pena handiarekin. Entrenamenduak mantendu, sasoi puntutxo horri eusteko, baina gauza handirik ez. Beste proiektu berezi bat badaukat buruan, baina gauzatu ahal izango den ez dakigun honetan, oraingoz ezin dut gauza handirik aurreratu.

"LEHIATZEKO AUKERA SORTU ARTE MENDIAZ GOZATZEA DA HELBURU BAKARRA"

JOKIN LIZEAGA, LASTERKARIA

"PROFESIONALAK GARA ETA GOZAMENA DA ERREPIDERA IRTETEA"

MIKEL ALONSO, TXIRRINDULARIA

"AHAL IZAN DUDAN AKTIBITATE GEHIENA EGITEN SAIATU NAIZ ETXEAN"

MIKEL ITURRIA, TXIRRINDULARIA

"KRISI HONETAN FUTBOLAREN BI ALDEAK IKUSI DITUGU"

NAHIKARI GARCIA, FUTBOLARIA

"SEGAN OSO GUTXI ARITU NAIZ, ETXE ONDOAN DUGUN LUR SAIL TXIKI BATEAN"

JULEN GABIRONDO, SEGALARIA



Talde egonkorra eta sendoa du Zumeatarra elkarteak, Triatlloan aritzeko. 30 lagun daude federatuta, une honetan. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

1992ko ekainean Allurralde kiroldegia ireki zen, eta handik sei urtera, 1998an, kiroldegian bertan gimnasioa eta aldagela berriak ipintzearekin batera, kanpoaldean, atletismorako eta futbolerako kirol-gunea eta estali gabeko harmailak ireki ziren.

Osasun krisialdiak Udal kirol instalazioak itxiarazi dituen arren, esan behar da atletismo pista praktika desberdinetako kirolariek gerturatzen direla, astean zehar. Horien artean, noiznahi ikusi ohi dira Ganbara saskibaloiko, Euskalduna futbol taldeko edo Leizaran eskubaloiko maila desberdinetako jokalariek, edo eta, kiroldegiko zenbait erabiltzaileak ("emakume korrikalaria" izeneko taldeko kideak, Crossfit taldeko kirolariak, taldeetan antolatuta ez dauden kiroldegiko erabiltzaileak...). Ikastetxetako soinketa taldeak ere sarri agertzen dira Ubitartera.

Atletismoa ez ezik, beste zenbait kirol praktikatzeko ere erabilgarria dela pista frogatu ahal izan da, zenbaitetan. Patinetan aritzeko, esaterako; are gehiago, Gipuzkoako zirkuituko patinen txapelketa jokatu zen 2017an, irristaketa federazioak antolatuta eta Andoaingo Udalaren eta Irri-Irri taldearen laguntzaz. Nolanahi ere, segurtasun neurriak direla eta (abaila handia hartzen

Atletismoa, Ubitarteko kirol jarduera

Ubitarteko atletismo pista futbol zelaiarekin batera eraiki zen 1998an. Erabilera anitzeko instalakuntza da, eta ikastetxetako ikasleek eta hainbat kirol elkarteek atera ohi diote zukurik handiena. Nagusiki, Zumeatarra atletismo elkarteak

dute patinatzaileek), ordutegi murriztua daukate horiek: asteazkenetan 14:30etik 16:00etara eta ostiraletan 14:00etatik 15:30era, hain zuzen.

Bestalde, esan behar da 2012an minimotoen erakustaldia ere egin zela bertan; arrakasta edu-

KIROL DESBERDINETAKO HAINBAT KIROLARIK ERABILTZEN DU ATLETISMO PISTA

ki zuen orduan ekimenak. Atletismo pista kiroldegiko erabiltzaileentzat edo eta Euskalduna, Zumeatarra eta beste zenbait kirol taldeetako kirolarientzat dago irekia. Bere garaian Udal Kirol patronatuak erabaki zuen ezin zela beste modu batera erabili pista, daukan kokapenagatik eta gainontzeko instalazioekin daukan konexioengatik.

Zumeatarra, erabiltzaile nagusia

Zalantzarik gabe, Zumeatarra elkarteak atletismoko prakti-

katzailentzat da erabilgarriena pista. Taldeko kide den Jon Iturraldek nabarmendu nahi izan du Allurraldeko kiroldegia lehenbizi eta atletismo pista geroxeago, biak ere erabat eraginkorrak izan zirela herriko atletismo zaleentzat. Lehen une

FEDERATU MAILAKO 12 KORRIKALARI DITU ZUMEATARRAK, ETA TRIATLOIAN 30 LAGUN

haietan atletismoa Andoain zabalteko ahalegin betean ibili ziren pertsonak hartu ditugoa: "Zumeatarra atletismo saileko kide ziren Pako Arnaiz, Bixente Huizi eta Luis Arrizabalagak, egundoko ilusioa jarritz, modu aktiboan hartu zuten parte atletismoko pista eraikitzeke proiektuan. Eta behin pista eraiki ondorengo urteak oso emankorrak eta aberatsak izan zirela esan daiteke atletismo sailean, izan ere, haur talde polita osatu baitzen, aipatu hirukote horren eskutik. Era berean, Huizik garai horietan hain ohikoa ez zen emakumezkoen talde bat ere osatu zuen".

Iturraldek gehitu duenez, gaurko egunean, mantendu egiten dira Zumeatarra atletismo taldeko atal desberdinak, baina garaia aldatu egin direnez, beste era batean bideratzen dituzte. "Pista egunero ez bada, ia egunero, kideren batek erabiltzen dugula esango nuke. Eskolarteko gazteekin astean bitan entrenatzen dugu eta adinaren arabera moldatzen ditugu entrenamenduak".

Kirol jarduera horiek ez dituzte lehiakortasunera bideratzen; "haurrek jolasen bitartez korrika egitea edo atletismo gainerako diziplinetan murgiltzea eta horrekin goza dezaten dute helburu, jakinda joko eta ariketen bitartez, hainbat giza balio landu daitezkeela. Esate batera, integrazioa bultzatzeko, erlazionatzeko trebezia lantzeko balio dezakeela alegia, kontuan hartzen badugu atletismoa banaka egin daitekeen kirola dela".

Federatuen mailan, berriz, Zumeatarra Atletismoko taldeak hamabi bat korrikalari dauzka federatuta; triatlloiko taldea, berriz, 30 bat kirolariek osatzen dute. Gutako askok seriek egiteko erabiltzen dugu pista, denbora jakin batean distantzia zehatz bat betetzeko helburuz. Kirolari batzuentzat aspergarria den ariketa hori, gozamen da guretzat. Bestalde, astean behin gutxienez, taldeko saio bat edo ahal duen ahal duenarekin saioa egiten saiatzen gara, eta horretarako, whatsapp talde bat daukagu sortuta; edonorentzako dago irekia, eta nahikoa da zumeatarrataldea@gmail.com posta elektronikoa idaztea.



Jon iturralde, Zumeatarra elkarteko kidea. AIURRI

Hobekuntzak, egiteko

Atletismoko pista zertan hobetu litekeen galdetuz gero, hona zer dioen Iturraldek. “Gu beti eskean ibiliko ginatke, inoiz ez bai-kaude konforme atletismoa gizar-tean zabaltzearen mesedetan! Baina pistei begira jarrita, esan-go nuke ezarri zenean bezala dagoela, eta berrikuntza batzuen beharrean dagoela. Esate bate-rako, euria egiten duenean pis-tako eremu batzuetan putzuak sortzen dira; uraren kanalizazioa ez dago egoera onean, eta lehe-nengo kaletik iskinatik joanez gero, estropezu egiteko arrisku haundia daukagu”.

Pistaren azpiegitura edo ma-teriala aipatzen hasita, luzarora begirako amets bat aipatu du Iturraldek. “Nahi nuke, egunen batean, tartanezko pista ikuste-ko aukera izango banu. Asfal-tozko pista gogorra egiten da, eta hanketako mina baretzen lagunduko luke”.

Bestalde, pistaren erabileraren arauen inguruan ere badagoela zertan hobetua gehitu nahi izan du Iturraldek. “Erabilera arau-tua dago, baina erabiltzaileentzat ez dago ikusgai, eta ez dira bete

arazten maiz. Hori dela eta, edo-nor eta edonondik joaten da. Batzuek ulertzen dute, eta saia-tzen dira serieak egiten ari diren korrikalariei errespetatzen, hots, lehenengo bi kaleak libre uzten. Beste batzuei, ordea, askotan arreta deitu behar izaten zaie kale horietan dabiltzalako. Azken finean, garbi utzi beharko litza-teke 1 eta 2 kaleak serieak egi-teko direla, 3 eta 4 kaleak ko-rrika egiteko (entrenatzeko), eta 5 eta 6 kaleak, beroketak egite-ko edo oinez doazenentzat. Arau horiek denen bistan egon behar-ko lukete, pista inguruan”.

Bada Ubitarteko instalakun-tzak Anoeta estadioarekin pa-rekatzen dituenik. Egia izan daiteke futboleko lehiaketetako finalak eta antzeko aparteko neurketak bertan jokatzeko Ubitarte egokia izan arren, au-ker hori saihesten duela zela-iaren eta harmailen -eta za-letuen- artean dagoen urrunta-sunak. Baina ikuspegi horren gaintetik, herriko kirol eragile eta kirolarien artean kontsen-tsua sumatzen da pistak An-doingo kirol munduari eragi-ten dizkion onuren inguruan.

Federatu mailako denboraldia amaitu da

Futbolari dagokionez, Gipuzkoako Futbol Federazioko Zuzendaritza Batzordeak amaitutzat jo du denboraldia. Joan zen maiatzaren 8an egin zuen jakinarazpena. Euskaldunako Ohorezko Erregional mailako taldeak jaitsiera saihestu du

Mikel Arberas ANDOAIN

Kirol gehienetan denboraldia amaitutzat eman dute. Aiurri kirol talde ezberdinetako ardu-radunekin harremanetan jarri da.

FUTBOLA

Lehen taldeak Ohorezko Erre-gional mailari eutsiko dio, eta bestalde kadete eta infantil txi-ki mailako taldeek igoera ziur-tatu dute. Bi taldeek, beraz, datorren urtean Ohorezko mailan jokatu dute. Albiste onak Euskaldunako harrobiarentzat.

Euskaldunako Ohorezko Erre-gional mailako taldeak ez du denboraldi ona egin. Lehen par-tidatan txukun samar ibili bazen ere, soilik 17 puntu lortuta, sailkapenaren azken postuan zegoen. Hala ere, mailari eutsi-ko dio, ez baita jaitsierarik egongo.

SASKIBALOA

Jaitsierarik eta igoerarik gabe amaituko da denboraldia. Andoain Zurrut senior mailan ari zen eta Ganbarako taldeak, berriz, harrobi mailan. Oro har, denboraldi ona egin ez duten arren, maila berdinean jokatu dute hurrengo denboraldian. Zurruti dagokionez, 3. mailan ari ziren jokatzeko eta zazpigarren postuan zeuden. Beste aldetik, Ganbara taldea ez zebilen oso denboraldi ona egiten eta azken postuetan kokatuta zeuden.

PILOTA

Eskupilotan benjamin, alebin eta infantil mailako txapelketak bertan behera geratu dira. Bes-talde, kadeteetatik gora ez dago garbi zer gertatuko den. Herriar-tekoarekin ere zalan-tza da na-gusi, baina txapelketa guztiak bertan behera geratzen ari di-renez, ziurrenik Herriartekoa ere jokatu gabe geratuko da; zenbait pilotarik adierazi dute, “Herriartekoa ikuslerik gabe



Mailaz igo berri den Euskaldunako kadete taldea. JAVIER ZATARAIN



Urrietako emakumezkoen senior taldeko Amaia Urdangarin jokalaria. URNIETAKE

jokatzea ez dauka zentzurik, txapelketaren garrantzitsuena sortzen den giroa baita”.

ESKUBALOA

Eskubaloian oraindik erabakiak hartzeko eta neurriak zehazteke daude. Hala ere, esan daiteke ez dela jaitsierarik egongo, bes-te kirol jardueretako liga asko-tan gertatzen ari den bezala. Urrietako emakumezkoen senior taldea esaterako, bigarren pos-

tuan egonda igotzeko aukera eduki lezake, baldin eta, fede-razioak ligako talde kopurua handituko balu. Ez da ziurra, baina pasa litekeen egoera da.

FUTBOLEAN ERABAKIA JAKINARAZI ZAIE TALDE GUZTIEI; ESKUBALOIAN EZ DA ORAINDIK OFIZIALA



andoainDARRA
euskaraz



Maiatzaren 6an ateratako argazkia, Andoaingo herrigunetik gertu eta Leitzaran bailararen hasieran ikus zitezkeen sugeak. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Jakinmina eta interes handia piztu zuen Aiurri.eus gunetik zabaldu ziren argazki eta bideo bildumak. Aurreko asteko protagonista izan ziren animaliei buruz gehiago jakiteko, Aiurri harremanetan jarri zen Unai Ormazabal biologoarekin. Sugeak sortzen duen beldurraren harita, Ormazabal atzera begira jartzen da: "Gizakion historia ebolutiboan zehar erlazio korapilatsua izan dugu sugeekin. Gure geneetan kodetua, antzinako sugeekiko beldur bat bada, eta beldur honek ez du suge ezberdinak bereizteko ohiturarik".

Suge biperakara, egun hauetako protagonista

Egun hauetan Leitzaran ibaian ikusitakoa Suge biperakara da. Ez da arriskutsua: "Suge biperakara (Natrix maura) Europa Hegoaldeko eta Afrika Iparraldeko gunelarik umel eta hezeetan ageri ohi da, ibaietan bereziki. Euskal Herriko suge guztien antzera ornogabe eta ornodun txikietaz elikatzea da. Are gehiago, ekosistema hauetako harrapakarietako bat izanda, bere harrapakinen populazioak ko-

Sugea bere bizilekuan

Joan zen asteko beroagatik, herrikide bat baino gehiago Leitzaran aldeko erreka ezberdinetara hurbildu zen. Herrigunetik gertu, uretako sugeak ikusteko aukera paregabea zegoen. Aiurri.eus guneko bideo-sortak ikusmin handia piztu du

puru osasuntsu batean mantentzen laguntzen du, Leizarango biotopoari oreka emanez".

Intsektu edo zapaburuez elikatzen da hasieran; heldutasunera iristean, berriz, anfibio eta arrainak harrapatzeari ekiten dio. "Buruntzaldeko bizidun

guztien antzera, suge hauek ez dira inolaz ere arriskutsuak jazarpenik jasotzen ez badute". Animalia hauek beren ingurumenean, lilurapenez eta miresmenez ikusteko aukera paregabea dugula gogorarazi digute, beti ere errespetua erakutsiz.

**EKOSISTEMA
OSASUNTSUARI
EUSTEKO
LAGUNGARRIA
DA SUGEA**

**EGUN HAUETAN
LEITZARAN IBAIAN
IKUSITAKOA
SUGE BIPERAKARA
DA**

Sugegorria

Euskal Herrian dauden suge pozoitsuak sugegorriak dira; honako hauek erronbo formako burua dute eta, garrantzitsuena, beraien begi-niniak katuen antzerakoak dituzte, marra bertikal baten antzerakoa.

Leitzaranen egun hauetan ikusi ditugunak begi niniak borobilak dituzte. Ez dira, beraz, sugegorriak.

Aiurri.eus gunean, argazki-bilduma eta bideo-sorta ("Bideoak" atalean klik eginez gero) ikusgai daude.

Interes handia piztu duen bideo-sorta



Maiatzaren 5eko bideoa. AIURRI

Sugeen agerpena

Andoaingo herrigunetik gertu, bi sugeetako bat Leitzaran ibaian botata zegoen zuhaitzaren adarretik behera jaisten ari dela ikus daiteke. Hura izan zen asteko lehen bideoa.



Maiatzaren 6ko bideoa. AIURRI

Sugearen lasaitasuna

Beroa eta eguzkia nagusitu ziren, eta aurreko astean zuhaitzean goxo zeuden. Bideoan ikus zitekeenez, ia-ia mugitu ere ez ziren egiten. Metro gutxira, bisitarien zalaparta.



Maiatzaren 7ko bideoa. AIURRI

Ur azpian

Go pro kamara batekin grabatutako irudi ikusgarriak ikus daitezke. Ahoan arraintxo bat duela ikus daiteke, gainera.



IRITZIA

MAIDER LAINEZ ANDOAINGO PSE-EE ALDERDIKO IDAZKARI OROKORRA

Zure hitzen indarra: Ez dugu memoriarik gabeko herria izan nahi

Gaur 20 urte betetzen dira ETA-ko hiltzaile batzuek gure adiskide eta lankide Jose Luis Lopez de Lacalle hil zutela, bere ideiak defendatzeagatik eta pentsalari librean izateagatik.

Eta nik gaur, inoiz baino gehiago, pertsonarengan jarri nahi dut nire begirada: senarrarengan, aitarengan, izaten utzi ez zizuten aitonarengan –zenbat gozatuko zenuen, Jose Luis, aitona izatera iritsi bazina!–, zutabegilearengan, lagun eta lankidearengan.

Dakizuenek, nik ez nuen Jose Luis zuzenean ezagutu, terrorista batzuek bere bizitza akabatzea erabaki baitzuten, bere ideiak hitzen bidez defendatzeagatik. Baina ez dut inoiz ahaztuko aterki gorri hori, hain gustura irakurtzen zenituen egunkariaren ondoan zabaldua eta zutik geratu zen aterki hura. Gainera, harrotasunez esan dezaket nolakoa zinen jakiteko zortea izan dudala, zure familiak eta lankide askok zutaz hitz egin didatelako: hitz egin didate askatasunen zure defentsa irmoaz, frankismoaren aurkako borrokagatik urte batzuk kartzelan egotera ere eramane zintuen menpekotasun ororen aurkako zure errebeldiaz, zure mintzaldi luzeaz edo ideiak betiere errespetuz eztabaidatu eta aurrez aurre jarritz zenbat gozatzen zenuen... Horretaz guztiaz hitz egin didate.

Eta zer da, hitza ez bada, kazetari baten ezaugarri nagusia? Zure hitzak izan dira zure ezaugarriak. Uste zenuena publikoki defendatzeko hain ziren indartsuak zure hitzak... kendu egin nahi izan zizkiguten, eta horixe egin zuten.

Zertarako? Zertarako balio izan du hainbeste min eta sufrimenduk? Zertarako hainbeste familia txikituta utzi?

Nire ustez, inoiz ere ez zen hilketarik izan behar, inoiz



2019ko maiatzaren 7ko lore-eskaintzako irudia. AIURRI

ez; hilketa batek berak ere ez du izan, ez justifikaziorik, ez zentzurik. Ordua da guztiok hori esateko, salbuespenik gabe, beldurrik eta konplexurik gabe.

Zalantzarik gabe, iragana gogoan izan behar dugu, bizi izandako sufrimendua ahaztu ez dadin. Eta hori ezin izango dugu egin, batzuk saiatzen badira gertatu dena zuritzen edo gauza bakoitzari bere izenez deitzeari uko egiten. Ezin dugu orrialderik pasatu aurrera begiratu behar dela argudiatuz. Hain zuzen ere, etorkizuneko belaunaldietan pentsatuz, orrialdea pasa behar dugu, bai, baina gertatu dena irakurri ondoren.

Memoria kolektibo eta inklusiboa eraiki behar dugu, oraina eta etorkizuna elkarbizitzarenak eta elkarbizitzarako izan daitezen. Ezin dugu memoriarik gabeko herri bat izan, iraganik gabe ez baitago ez orainaldirik eta ezta ere etorkizunik. Hain bidegabeki eta krudelki kendu zizkigutenei zor diegun erantzukizuna eta betebeharra da. Biktima guztiei zor diegu, salbuespenik gabe.

Egia da, batzuek esaten duten bezala, data borobila dela gaurkoa, baina zer axola dio? Guk, José Luis, aurreko urteetan bezain presente

sentitzen zaitugu. Eta orain ere berdin-berdin gogoratzen zaitugu. Faltan botatzen zaitugu, oso faltan.

Estutzen banauzue, egia da, agian aurten, pixka bat gehiago. Baina ez zure hilketaren 20. urteurrena delako, baizik eta aurten ezin izango diogulako elkarri besarkada hori eman, hainbeste suspertzen gaituen eta hainbeste batzen gaituen musu hori. Eta hori, egia da, kostatu egiten da.

Nahiz eta fisikoki hori egiterik ez izan, hitz hauen bidez, hain zureak ziren hitzen indarrarekin bidali nahi diet besarkadarik eta musurik handiena Mari Pazi, Aitziberri, Alaini eta gainerako familia kideei, lankide eta lagunei. Denok gaur ere gogoan zaitugu eta ez zaitugu ahazten.

2002. urteaz geroztik aurtengoa izango den arren sozialistok Andoainen lore-eskaintzarik egingo ez dizugun lehenengo aldia, esan dezadan argi eta garbi: berdin-berdin gogoratzen zaitugu, José Luis, nahiz eta ezin dugun elkarrekin egon, ezin argi eta nabarmenagoa baita ez distantziak, ez eta ere denboraren joanak, ez dutela ahanzturarik ekartzen, gure memoriaren parte baitzara.



AIURRI

Joxe Ramon Ansa gogoan

1979ko maiatzaren 6an, BVE talde ultraeskuindarrak Joxe Ramon Ansa Etxeberría Upategi baserriko gaztea erail zuten, eta joan den asteazkenean bere senideek gogoan hartu zuten, urtero bezala. Loreak utzi zituzten, hil zuten tokian ipinita dagoen oroitarrian. 70 eta 80ko hamarkadetan Buruntzaldean izua zabaldu zuten indar parapolizialen biktimetako bat izan zen Ansa.

Herrikideen lore-eskaintza

Maiatzaren 7an, ETAk erail zueneko 20 urte betetzen ziren egunean bertan, Jose Luis Lopez de Lacalleren izena daraman parkean lore-sorta ipini zuten. Herrikide batzuren ekimenez izan zen, Osasun Alarma egoera dela eta Andoaingo PSE-EEK ez baitzuen urteroko omenaldi ekitaldia antolatu.



AIURRI



Xabier Lasa ANDOAIN

Zeri erantzuteko sortu zen Fundazioa?

Ainara Esteran: 2012an sortu zen. Aurrez, biktima ezberdinek go-goeta egin zeukaten, eta hori hartu zen abiapuntutzat. Zergatik? Arrazoi desberdinengatik. ETak adierazia zuen behin betiko utziko zuela bere jardueraren armatua, eta ireki zen eszenategi berri horretan, sentitu zuten haien egoerak erantzukizun bat zekarela berekin. Alde batetik eraildako senideen memoriarekin eta bestetik gizartearekin. Era positiboan ekarpena egiteko konpromisoa hartu zuten, herri honek bakerako bidean aurrera egin zezan, bizi izandako tragedia errepika ez zedin eta gatazkaren sustraiak politikoak diren heinean konponbidea ahalbidetuko duen akordio politiko baten aldeko jarrera bultzatuz. Bestaldekik biktimen eta gertatutako guztia inguruan kontakizun jakin bat zabaltzen ari zela, modu interesatu eta partzialean.

Testuinguru hartan, biktimak aipatzen zirenean, soilik biktima jakin batzuk hartzen ziren kontuan, biolentzia bakar batez hitz egiten zen... Estatuaren indarkeriaren biktimak guztiz baztertuak zeuden, gehienak existitu ere ez ziren, pairatutako biolentziaren jatorria, jasandako giza eskubideen urraketa eta indarkeria horren bestelako ondorioak ere kontakizunaren parte izan behar zutela. Hortaz bazela garaia euren ahotsa ere entzuna izan zedin, eurek ere bazeukatelako zer esana indarkeriaren inguruan, jasandako minaz, gatazkaren ondorioen konponbideaz.

Estatuak eragindako biktimen zentsurik ba al dago?

Tasio Arrizabalaga: Fundazioa eratu eta laster, estatuak urratutako bizitzeko eskubidearen txostena plazaratu genuen, 1958tik honako hildakoen zentsua azalduz. Horrela, 366 heriotza zenbatu ditugu (estatu agenteek hildakoak, guda zikinak hildakoak, faxisten erasotan hildakoak, salbuespeneko neurri politikoaren eraginez hildakoak...); horietatik, ofizialki soilik aitortuak 88 (%22,5) izan dira orain arte. Bestalde, gure egiten dugu torturatuen atalean Euskal Memoria Fundazioak ematen duen 5.657ko kopurua.

A.E.: Datu horietaz gain, gertatutakoaren memoria eraikitzeari begira, gertatu den guztia ezagutu behar dugula uste dugu, berriz ez gertatzeko berme gisa

“Testigantza emateko deia luzatzen dugu”

Ainara Esteran eta Tasio Arrizabalaga estatuak eragindako biktimen aldeko Egiari Zor Fundazioko kideak dira. Biktimen aldeko legeak, tortura ikerketak edota Buruntzaldeko biktimak izan dituzte hizpide, Fundazioak Martin Ugalde parkean daukan egoitzan



Ainara Esteran eta Tasio Arrizabalaga Egiari Zor taldeko kideak. AIURRI

balio dezan eta gatazkaren giza ondorio guztien erradiografia integrala ezagutzea beharrezkoa dela iruditzen zaigu. Hortaz giza eskubideen urraketez gain sufrimendua eragin duten bestelako heriotzak eta gertaerak ere kontutan hartu beharko liratekeela.

Bestalde, zauritu kopurua ere kontuan hartzen dugu, 1960-2013 epean Poliziak, Guardia Zibilak, Ertzaintzak, Estatu terrorismoak, talde parapolizialek edo eskuin-muturrekoek eragindakoak.

Jaurilaritzak emandako datuen arabera, 1.172 lirateke, baina uste dugu errealtatea hori baino askoz ere zabalagoa dela; egin kontu, esate baterako 1976/03/03an, Gasteizen bakarrik, eta hamabost minutuko tartean, 60 pertsona zauritu zituela poliziak, horietatik 44 balaz.

Nolanahi ere, beharbada auzitan jarri beharko genuke biktimen inguruan egiten den beste bereizketa mota bat. Hemen biktimen inguruan hitz egitean, eraildakoez egiten da. Zaurituek, torturatuek,

giza eskubideen urraketa larria jasan badute ere eta biktima zuzenak izanda ere ez dute tratamendu berbera jasotzen. Adibidez badago herriz herriko zentso bat bizitzeko eskubidearen urraketa (ez denak) jasotzen duena, baina ez dago zentsorik bestelako giza eskubideen urraketa jasotzen duenik. Bereizketa bat ematen da. Bereizketarik gabeko ikuspegi horrek giza eskubideen urraketei dagokienez behintzat gatazkaren dimentsio erreala emango liguke.

Azken astetan torturaren inguruko informazioak zabaldu dira, EAEn eta Nafarroan egindako ikerketak nahiz Jaurilaritzak sortutako Legea direla medio.

T.A.: Estatuaren biktimen arloan, torturaren praktika ezkutatu nahi izan den errealtateetako bat da. Jaurilaritzak eskatuta EHuko Kriminologia Institutuaren ikerketaren arabera, EAEn 4.114 kasu zertifikatu zituzten. Nafarroan, berriz, orain gutxi azaldu dute txostena; han, 1960-1978 epea aztertu dute, eta 204 kasu zehaztu ahal izan dituzte, nahiz eta zailtasunak eduki dituzten jendearengana iristeko (informazioa ez da behar bezala iritsi, torturatu batzuk jada ez dira bizi...).

Guztietatik, ofizialki, soilik 31 aitortu dituzte. Jaurilaritzak 1960-1978ra bitarteko eta 1979tik honako kasuak aztertu eta aitortzeko dekretu bana plazaratu ditu, eta oraintxe tramitazio lanetan gabilta. Gauzak horrela, biktimei deia luzatzen diegu eskaerak aurkez ditzaten.

Andoingo Oroituz taldeak Argentinako kereilarako egindako ikerketan adierazi denez, 60 eta 70eko hamarkadetan jende ugari izan zen torturatua, baina horietatik asko ez ziren epailearen aurretik igaro, ez dute inoiz salaketarik jarri edo testigantzarik eman...

A.E.: Tamalez, torturen kasuan frogatzearen zama torturatuaren esku jarri izan da beti. Nolanahi ere, frogarik, txosten medikurik edo salaketa judizialik ez edukitzea ez da nahitaezkoa. Halakoe-tan, nazioarte mailan ezartzen den protokolo zientifikoa badago testigantza egiazkotasuna eta sendotasuna neurtzeko erabiltzen dena, Istanbulgo Protokoloa hain zuzen ere.

T.A.: Argi daukaguna da kontatzen ez dena ez dela existitzen, ez dela inon erregistratuta gertatu eta ez dela aintzat hartuko, ez biktimei zor zaien aitormenaren atalean ezta gatazka interpretatzerako orduan ere. Hortaz, gonbitea luzatzen diegu torturen biktimei bere bizipenari buruzko testigantza eman dezaten.

Diktaduran bai, baina geroztik demokrazia ezarri zenetik, tortura kasuak bakanak baizik ez direla existitu esaten da...

A.E.: Franco hil geroztik, trantsizio demokratikoa deitutako hartan ez zen benetako erregimenarekiko hausturarik eman, besteak beste Estatu aparatuek ez ziren

depuratu. Inork ez zuen bere gain hartu altxamendu militarrek eta ondorengo diktadura militar faxistak eragindako genozidio eta gizateriaren kontrako krimenen erantzukizuna. Guzti hori inpunitatez estali zen. Horrela, diktadurako inertziek bere horretan jarraitu zuten, eta torturaren praktika dago horien artean. Joxe Arregi 1981ean hil zuten eta geroztik ere heriotza gehiago heldu ziren.

T.A.: Kriminologia Institutuaren txostenean agertzen den grafiko estadistikoetako bat ezin argigarriagoa da: torturaren praktika zabala adierazten duten pikoak ageri dira 1975ean, 1992an, 2001an eta 2009an. Alegia, tortura sistematikoa izan zela diktaduran, eta demokrazian. EHUren txostena mahai gainean egonik, zer egin da geroztik?

EHUren txostena mahai gainean egonik, zer egin da geroztik?

T.A.: Espainiako gobernuaren delegatu berri den Denis Itsaso Euskadi Irratian entzun dugu oraindik orain, nola aipatzen zuen iraganarekiko autokritika. Kazetariak torturengatik espreki galdetu zionean, hark mutisa egin zuen, iskin egin zion... Hau da, 2017ko abenduan aurkeztutako txostenak agerian uzten duen errealitateak deserosotasuna eragiten die klase politikoari edo polizien sindikatuari. Ez dute premiarik sentitzen egiaren, justiziaren eta aitortzaren bidean sakontzeko. Horrexegatik azpimarratzen dugu zeinen garrantzitsua den testigantzak emateaz gain, dekretuari erantzunez eskaerak egitea.

A.E.: Torturarekin eta Estatuaren indarkeria jatorri duen giza eskubideen urraketa oroekin larria den kategorizazio bat ematen ari da. Ez da soilik kategorizazioa jasandako biolentziaren jatorriaren arabera, baizik eta biolentzia bera-
ren kategorizazioa. Estatuaren indarkeriak giza eskubideak urratu ditu eta gizartea babestu behar lukeen estatuak berak eragin ditu, hau oso larria da. Horren aurrean, ikusten dugu, egunero, instituzioetatik eta politikagintzatik nola behin eta berriro batzuei exijitzen zaien autokritika egitea, eta soilik batzuei. Eskakizunen ataleko desoreka horrek eramaten gaitu pentsatzera legitimatu egin nahi dutela estatuaren indarkeria.



Ainara Esteran eta Tasio Arrizabalaga. AIURRI

Iraganean gertatutakoari buruzko kontakizunaren aroa bizi dugu...

T.A.: Belaunaldi berriei, eta gizarteari orohar, kontakizun partziala ari zaie transmititzen erakundeetatik. Mezua da: ETA izan da giza eskubideen urraketen eragile nagusia, ETA da biolentziaren jatorria, 1960an hasten dena. Estatuak eragin dituen urraketak jatorrizko biolentzia horri erantzuteko izan dira, "lege antiterroristaren" baitan beti ere. Alegia, poliziaren abusuak izan direla, bai, baina nolabait, justifikatuak daudela terrorismoaren aurkako ezinbesteko borrokaren ondorio izan direlako. Era horretan, estatuaren erantzukizunak diluitu egin nahi dira.

Oso errelato partziala eta interesatua da hori. Hasteko, estatuaren indarkeria ez baitzen ETAr erantzunez jaio 1960an, askoz ere lehenagotik zetorren. Gure gizartea oso anitza da, eta

ez genuke errelato bakarra onartu behar. Egongo dira errelato ofizial hori konpartitzen dutenak, baina baita ere ez dutenak konpartitzen. Eta azken horiek ere espazioa behar lukete eduki gizartean, berea zabaltzeko eta defendatzeko. Izan ere, iruditzen zaigu gauza bat memoria eta gertakizun konkretuen kronika objetiboa (heriotzak, torturak, zaurituak, mehatxatuak...) direla, eta bestea, guzti horiek aintzat hartuta egin daitezkeen interpretazio anitzak.

A.E.: Politikariek etengabe go-raipatzen dute euskal gizartearen pluraltasun ideologikoa, baina gero, errelato bakarra ezarri nahi dute eta gainerakoei lege murriztaileak aplikatu nahi dizkigute ez gaitzeen askatasun osoz mintzatu. Guk ez diogu errelatorik inposatu nahi inori, baina aldi berean, ez dugu nahi inork berea guri inposatzerik. Ulergarria baita guztiok, pertsonalki, bizi-

tutako bizipenetatik eta daukagun ideologiatik abiatzea gauzak aztertzerako orduan.

Interpretazio guztiak jarri behar ko genituzke mahaian, eta aintzat hartu. Bidea egiten ari gara zentzu horretan, eta gaur da eguna gure existentzia ez dena ukatzen, behinik behin.

Nola baloratzen duzue Jaurilaritzaren menpekoo den Gogora Institutuaren jarduna?

T.A.: Harremanak mantentzen ditugu, baina ez gatzat bat bere jardunarekin. Bortizkeria pairatu zuten pertsonen inguruko lekukotzak bildu eta transmititzeko jaio zen arren, modu desorekatuan betetzen du funtzio hori. Biktimak kontuan hartzerako orduan, biolentziaren jatorriari egiten dio kasu giza eskubideen urraketari baino gehiago.

Buruntzaldeari begira jarrita, "Heriotzaren triangulua" datorkigu gogora batik bat.

T.A.: Joan den urteko urrian Hernanin ekitaldi publikoa egin genuen, ohartuta eskualde horretan (Hernani, Urnieta, Andoain, Astigarraga...) estatuaren biolentziak, 70eta 80ko hamarkadetan, makina bat hildako eragin zuela, BVE nahiz GAL siglen atzean. Egia da estatuaren biktimen kolektibo zabaletik horiek izan daitezkeela aitormen ofizialik handiena jaso dutenak. Baina hala ere, guzti horien artean ez dira %50era iristen aitormen hori jaso dutenak.

A.E.: "Heriotzaren trianguluko" biktima horiek, aitortza maila murrizta jaso dute, egiaren ikuspegitik batik bat. Iturbide Piti eta Zabala zigortu zituzten, baina horien gainetik zeuden ardura-dunekin inpunitatea ezarri da; estatuak inoiz ez du bere barneko aparatuek eduki zuten inplikazioari buruzko onarpenik egin.

Gurutze lantziri dagokionez, Jaurilaritzak 2016an argitaratu zuen txostenak "argitu beharreko kasu"tzat jotzen du...

A.E.: Oso kasu gordina da. Bere familiak bizi izandako errealitatea oso dramatikoa izan da, eta izaten segitzen du. Bere ama orain asko ez dela hil da, urtetan egundoko sufrimendua bizituz eta inongo aitormen ofizialik jaso gabe. Kasu hori tramitatzen ari gara 12/2016 Legearen baitan aurkezteko, beste makina baten antzera. Kasuaren inguruko informazioa eskuratu ahala oartzten zara bidegabekeriak atal ugari dituela, zein baino zein ankerra-

Datu aipagarriak

Egiari Zorrek estatuaren biktimen inguruan (1960tik hona) egindako zentsua, tipologiaren arabera. Heriotzak: 366. Horietatik, ofizialki aitortuak: 88.

Estatuaren agenteek hildakoak: 219.

(1958tik 1975era 68; 1975etik 1978ra 52; 1978tik 2019ra 99). Torturatuak (13), exekuzio bidegabeak (73), kontroletan (23), mobilizazioetan (28), fusilatuak (2), buruaz beste egitera behartuak (1), bestelako inguruabarretan (ke-potoen eraginezko asfixiaz, kulata-kolpea buruan, polizia autoarekin harrapatzea...) (79).

Guda zikinak hildakoak: 79.

Triple A (8); BVE (25), GAE (5); GAL (29); Behartutako desagertzeak (4); nork bere gain hartu gabeak (8).

Faxisten erasotan hildakoak: 4.

Sastakaiz hilak (1); mobilizazioetan (2); jipoien eraginez (1).

Salbuespeneko neurri politikoen eraginez hildakoak: 64.

Espetxe politikaren eraginez (35); dispartzio politikaren eraginez (16); deportazioaren eraginez (9); beren buruaz beste egitera behartuak (4).

goa giza eskubideen ikuspegitik, hasita lantzi agindu judizialik gabe atxilotu zutela, eta bukatuz bere heriotza justifikatu izana erretzaila zela esanez. Noizbait justizia aplikatzeko borondaterik balego, derrigorrez, erantzukizunak partekatu egin beharko lirake (guardia zibilak, epailea, forentsea, barne ministerioko kargu politikoak...).

Zuek biak, estatuaren biktima zuzenak zarete?

T.A.: Ni ez, zorionez.

A.E.: Ni bai. 2000an Espainiako poliziak atxilotu eta torturatu egin ninduen.

Tortura kasuak

EHUko Kriminologiako Euskal Institutuak torturaren gaineko bi zentsu (behin behinekoak):

- 4.113 EAEn (1960-2014).
- 204 Nafarroan (1960-1978).

EAEn, eragileak:

Guardia Zibila (1.792);
Polizia Nazionalea (1.785);
Ertzaintza (336).

Ondorietako batzuk:

- Zifra horiek kaltetuei buruzko datu errealaren azpitik daude

(batzuk hilak dira, besteak ez dute testigantza eman...).

- Inkomunikazioaldiak, torturaren praktika ahalbideratu egin du.

Bestalde, Euskal Memoria Fundazioak egindako ikerketaren arabera, Euskal Herrian 5.657 tortura kasu egiaztatu izan ditu (4.643 pertsonak pairatutakoak).

Antia literatur lehiaketa

Bizi dugun egoera ez ohikoa bada ere, Urnietako Udalak sariketaekin aurrera jarraitu du. Ez da, ordea, sari banaketa ekitaldirik izango

Erredakzioa URNIETA
Hauek dira aurtengo saridunak Antia Literatur lehiaketan:

Gazteen kategoria
• Arixen Unanue 'Ikusezina'.
• Mireia Lopez 'Naridoak'.

Haur maila:
• Maddi Arrieta
'Sirenaren ezkata'.
• Malen Goñi
'Errealitatea eta ametsa'.
• Malen Garmendia
'Gabon magikoak'.



Arixen Unanue. UDALA



Mireia Lopez. UDALA



Maddi Arrieta. UDALA



Malen Goñi. UDALA



Malen Garmendia. UDALA



Langabetu eta familientzako informazio zerbitzua

Pertsona, langabetu eta familientzako informazio eta aholkularitza zerbitzua martxan jarri dute


Erredakzioa ANDOAIN
"Informazioa, orientazioa eta aholkularitza ematea da" Beterri-Buruntzako garapen agentziaren helburua. Beti ere gainontzeko erakunde publikoekin elkarlanean. Bi kontsulta mota egin ahalko dira:
• Enplegu orientazioa: Zalantzak argitu (langabezia edo DSBE/RGI eskaera edo berritzea, ERTEi buruzko kontsultak...) eta tramite ezberdinak aurrera eramateko zailtasunak dituzten herritarrei laguntza tekniko emateko zerbitzua.
• Diru-laguntza eta neurriei buruzko aholkularitza zerbitzua: alarma egoeraren eraginpean dauden pertsonen eta familien zuzendutako neurriei, laguntza ekonomiko eta gizarte-laguntzei buruzko informazioa eta aholkularitza zerbitzua.
Zerbitzua jaso ahal izateko telefono zenbakia eta ordutegia: 688 774 650 (09:00-13:00).



ZORION AGURRAK



URNIETA
Paul Hernandez eta Angel Bueno
Maiatzaren 7an Paulen urtebetetzea ospatu genuen eta maiatzaren 14an, aitona Angelen urtebetetzea ospatuko dugu. Zorionak bioi! Muxuak! Etxekoak.



ANDOAIN
Natxo
Zorionak Natxo, morroskito! Oso ondo pasa zure bigarren urtebetetzean. Muxu potoloak etxekoan partez!



ANDOAIN
Maite
Iruretagoyena
Urteak bete zituen joan zen maiatzaren 7an. Zorionak! Bereziki Oinatz, Aner eta Unaxen partetik.



ANDOAIN
Aizpea Isasi
Izeba Aizpea maiatzaren 10ean hamarkada berria estreinatu du eta ezin izan dugu elkarrekin ospatu. Ea noiz elkar ezagutzen dugun eta berriro ospatu. Manexen partetik.



ANDOAIN
Naroa Irazu Roman
Naroa Irazu Romanek 11 urte bete zituen joan zen maiatzaren 12an. Zorionak eta muxu handia etxeko guztien partetik.

Tokiko merkataritza = Herri bizia

Baloratu herriko denda txikiak eskaintzen diguten

konfiantza
kalitatea
eta tratu pertsonala

GUZTION
Urnietako udala